

AMAREN ANTZEKO SEME-ALABAK

Doinua: Mahi baten inguruan"

1

Hementxe gagoz, Jauna,
kristau batzarrean,
egun ederrean;
gaur Andra Mariaren
maitasun-garrean.
Hemen gabiltz munduan
galdu beharrean,
sarri noraezean
ilun samarrean;
Zeuk hitz eginda jarri
gaizuz indarrean.

2

Zure Berbak, Jauna, gaur
barriro entzunez
fedezko zentzunez,
barria bete jaku
zure poztasunez.
Zeure egarriz gabiltz
ondo dakizunez,
ez gaizuz zigortu
zure isiltasunez!
Hitz egin, arren, Jauna,
ohizko maitasunez.

3

Izan nahi dogu, Jauna,
Amaren antzeko
zeure esaneko,
behar dan guztietan
Zeu zerbiduteko.
Berbearen hazia
ez bedi galtzeko,
emon daiala gugan
ehun ale bateko,
zure esanak, Jesus,
zelan ez beteko?

4

Bizitzan ez da falta
pena ta nekerik,
ez dago kentzerik!
Hori barik ez dago
Zuri jarraitzerik.
Betor Zuk nahi dozuna
eta ez besterik,
ez dalako guretzat
beste bat hoberik;
Zure nahia dedila
guregan beterik.

5

Zu zaitugu, Maria,
Nazaretetokoa,
eta jainkozkoa;
danetan izan zinan
hain esanekoa!
Lagun eiguzu, Ama
bihotz betekoa,
ondo betetzen orain
geure egitekoka;
gero lortu zerua
behin ta betekoa.